



ANAITASUNA

AÑO I—Núm. 11

Suplemento a la Hoja
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Mayo 1954

BARRUKO BIZITZEA

Maiatzaren azkenengo domekan, Pio Amargarrena kanonizatua izango da Egun orretan, Erromako Aita Santuak, mundu guztiauren aurrean, Pio Amargarrena santua izan zala autortuko dau.

Eleizearen larrialdi aundietan, Aita Santu doneak bialtzen izan dauz Jainkoak. Amaseigarren gizaldian, Protestantismoa sortu zanean, San Pio Bosgarrenak zaindu eban Eleizea. Eta ogeigarrenean, Amerikanismoa ta Modernismoa agertu direanean, San Pio Amargarrena izan da gure zuzendaria ta eredia.

Len eta orain, etxetik urteniko arerioak izan dira beti txarrenak. Gure egunotan, kristiñau asko dira erlegiñoaren gaiñean oker pentsetan dabenak. Euren eritxiz, erlegiñoa jagoteko ta ainbat ariñen zabaltzeko, gauzarik beiñena, gauzarik egokiena auxe da: Propaganda egin, zarata egin, gaurko aurrerakuntza guztiak orretarako erabili, erlegiñoa eleizatik kanpora atara, hospital aundiak eregi, kolegio ta eskola katolikoak geiagotu, monja zarratuen komentua gitxitu, semeak ondo azteko —komentura sartu barik — munduan geratu. Auxe ei da bearrekoena, auxe aurrerena. Beste enparauak, urrengo datoz: otoitz egin, birgiñatasuna Jainkoari eskiiñi, gure bizitzan Jesukristoren antzekoak izan, munduko arriskuetaarik iges egin, gure burua mortifikatu, pobretasuna ta osterantzeko birtute gatxak maite izan. Berba ba-

ten esateko: **Agiriko ekintzea lenengo, arima barruko bizitza urrengo.**

Olan pentsetan dabenak, okerrean dagoz. Euren okerkeriari Amerikanismoa deritxo. Ain zuzen-bere, ekintza larregiko uneda onetan bialdu deusku Jainkoak Pio Amargarrena. Jainkoaren Ordezko santu onek alegin guztiak egin zituan kristiñauen arima barruko bizitza sendotuteko. Eta orretarako, iru gauza batez-bere egin ebazan: Eleizgizonen artean santu izateko zaletasuna biztu, kristiñau errietan sarriro komulgetako oitorea zabaldu, ta kantu liturgikoaren bitartez eleizkizunen edertasuna barriztatu.

Ez zan izan alperrikoa Pio Amargarrenaren lana. Beingoan agertu zan eleizgizon eta osterantzeko kristiñauen artean santutasunerako jokera indartsu bat. Tximistea baizen laster zabaldu zan mundu guztian zear jaunartzeko ekandu ederra. Geroago ta leku geiago artzen asi zirean kristiñauak eleizkantuetan.

Arima barruko bizitza lenengo, kanpoko ekintza urrengo. Auxe izan zan Pio Amargarrenaren asmoa. Auxe da berak emoten deuskun ikasbidea. Auxe, Jesusek berak irakatsi euskuna.

Izan gaitezcan lenengo geu kristiñau onak. Egin daigun geuk lenengo besteak egin daiela gura doguna. Sendotu daigun lenengo gure arima barruko bizitza. Egin daigun urrengo beste guztia.



Euskerazko teatroa. Muxikako Areatzan, lagun batzuk — aundi ta txiki — batu izan gara euskerazko teatroa egiteko. Gure zuzendaria, Balentin Enbeita da. Berak egin ditu bertsoak, eta berak irakasten deus-kuz kantak.

Oraingoan, *Jesusen Bizitzeagaz* asi gara. Biotzak samurtu eta lagun urkoaganako maitasuna sortuteko gauzarik egokiena. Jesusen bizitza samurra, Jose ta Mariaren alkar maitasuna, euren bizitzako neke samitñak: dana agertzen da gure teatroan, dana kantuz, dana bertsoz.

San Jose egunez, Mendatan birritan egin genduan, eta bietan teatro lekua guztiz beteta egon zan. Ainbat txalo, eta txalo bitartean negar zotitñak-be entzun genduzan: ain barrura sartu jaken ikusi ta entzuten ebena.

Gaur-be badabil zeresana Mendatan, teatro ori sarriago egin bear litzakela-ta.

Areatzan berton, iru domekan jarraian egin dogu, eta irurretan lekuri ez. Barrero noiz egingo dogun preguntetan dabe ikusi barik geratu direanak. Eleizgizonak eurak-be arrituta esan deuskue: «Guk ezin egin izan doguna, zeuek egin dozue, eta askorentzat ikasbide ederra izango da zuek egiten dozuen lan eder ori».

Gorozikan, aprillaren amaikan egin genduan. Erri guztiak ikusi eban. Eta ez ikusi bakarrik, baita sari ederra emon-bere. Zorionak guztiori. Eta eskerririk asko bertako Parroko Jaunari bere adorezko berbakaitik, eta Alkate Jaunari bere gizabide ta esku zabalagaitik.

Egizale

Eskolako mutil zurrena da Periko, batez-bere geografian.

Zer da au?—itaundu eutsan bein maixuak, mapa gaiñean atzamarra ipiñita.

—Ori, atzazal loi bat — erantzun eutsan mutillak.

* * *

Telefonoz:

—Entzun: Aztuta itxi dot guarda-sola, berorren etxean uste dot. Mese-dez, ikusi bei ea pertxeroan dagoan.

—Itxaron apur baten...Au da?

KURUTZEGRAMA N.º 8

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

Ezkerretik eskumaldera: 1. Suaren ondo.—2. Astuna ez dana. Egon adi.—3. Zatia (atzekoz aurrera) Prononbre personala (atzekoz aurrera).—4. Mahoma'ren suiña. Prononbre personala.—5. Konsonante letrea. Ukatuteko esaten da.—6. Saludoa egiteko. Leku aretara.—7. Agotik botetan da (atzekoz aurrera). Geiegi.—8. Eskolara doana. Bokal letrea.

Goitik beera: 1. Akusatzaillea.—2. Rusiako ibaia. Prononbre personala.—3. Amak umeari esnea emoteko. Urteko sasoi beroa.—4. Leku onetara. Fabriketatik botetan dan zarreria (atzekoz aurrera).—5. Konsonante letrea. Konsonante letrea.—6. Berak orain jakin. Garaua.—7. Urunaz egiñiko janaria. Modua.—8. Txarra ez dana. Zu orain izan.

1. Sutondo.—2. Artin. Ago.—3. Aial. Nik.—4. AZALPENA. Ezkerretik eskumaldera: 1. I. I.—5. T. Ez.—6. Agur. Ara.—7. Adur. Lar.—8. Irasie. A. Goitik beera: 1. Salartari.—2. U.—3. Guk.—3. Titi. Uda.—4. Ona. Sar.—5. N.—6. Dak. Ale.—7. Ogi. Era.—8. On. Zara.

Illeko Ipuiña

PATXI BARREGARRI TA TXOMIN ZITAL

Patxi Barregarri ta Txomin Zital larri ebizan, Pazko aldian, euren arimetako estutasuna zelan kenduko.

Lapurretan eginda egozan, eta konpesetako bildur zirean. Baiña kristiñauak zirean lez, ez egozan urtean beingo autortzea eta jaunartzea egin barik geratzeko-be.

—Nik jaukaat bildurra autortzeko— esan eutsan Patxik, domeka gau baten, Txomiñeri.

—¿Zer egin dok ba, mutil?

—Bildots bat ostu joat.

—Nik idi eder bat.

—Ondo damututa najagok neu lapurretan egiña.

—Bai neu-be, mutil. Eta al bada, osturikoa jabeari biurtu ezean, ez ei jagok parkamenik, entzun neutsaan praille bateri sermoatan, lengo baten.

Urrengo zapatu illuntzean eldu zirean alkarregaz eleizara, eta bildur bildurrez egozan eleizbarreneko zokondo illun baten, zein lenengo autortu erabagi eziñik. Alako baten,

— Neu joango nok — esan eban Patxik, eta autortegira joan zan.

Patxi autortzen egoan bitartean, belauniko egoan Txomin alboratxua-go, ikara ikaraz, bere aldia noiz elduko.

Patxi asi zan autortzen, eta bildotsa ostu ebala esan eutsanean,

—Bildotsa ostu-be egingo euan ba! — erantzun eutsan autortrentzuleak.

—Bai Jauna. Bildotsa ostu neban.

—Baiña, bildotsa ostu-be! — barrero abadeak.

—Bai Jauna. Eta «emen dago idia ostu ebana-be» esan, eta arrapaladan urten eben biak eleizatik, alkarren atzean.

* * *

Amaikatxu arrapaladako konpesiño egiten dira, arazoa kentzearren, urtean bein, ozta oztaz, autortegira eltzen direanen artean.

Astiz eta ondoen gertuta eldu bear leukeenak, konpesoreak astirik gitxien daukonean joaten dira itsumustuan, urte beterako arazoa keñdu eta barrero lengo bideetan bardin jarraituteko.

Ez ei dabe pekaturik eukiten! Je!

Autortzea, edozelan egiteko baiño gauza benagoa, gauza serioagoa da. Egingo dogunean, egin daigun ondo gertuta eta damututa, geure arimen kalterako izan ez daiten.

Aurraitz

BETI AURRERA

Datorren illean izango da urtebete, bizkaierazko **ANAITASUNAK** urten ebala. Denpora onetan, eleizorri kaxkar onek, euskera maitearen irribarrea zabaldu dau Bizkaia guztian, eta euskereagaz batera, kristiñau dotriñearen azi gozoa erein.

Ori egitea, ez da izen gauza erreza baiña. Bildur giñean izan-bere, erriak aintzat artuko ete eban gure **orritxua**. Aurretiaz genkian, euskaldunak irakurteko oiturarik ez eukena. Ori gorabeera, atara genduan lenengo numerua, ta bigarrena, ta irugarrena..., ta jarraian beste enparauak. Gure euskerea guztiz erreza zalako-edo, **ANAITASUNAK** edonun euki dau abegi ona. Kurutzegramea dala-ta, au ta bestea direala-ta, askori gustau jake gure **orritxua**.

Eskerrik asko, euren diruaz lagundu deuskueneri. Milla esker, **orritxua** errietan zabaltzen dituen neskatilleri. Gure eskerrona, euren burubideakaz argitu gaituen Abade Jauneri.

Euskeraz irakurteko zaletasuna errezago zabaltzeko, ta kristiñau ikasbidea lekuri geienetara eroateko, orri bakotxeko **IRU TXAKUR IXIKI** asi gintzazan eskatuten. Gauza gitxi benetan! Eta datorren urtean-be, orixe bakarrik eskatuteko asmoa dogu. Oitu daitezala euskaldunak euren berbetan irakurten. Euki daiela euskal liburuak leiduteko zaletasuna. Il daitela betiko euskera ulertueziñaren

ustea. Auxe da gure guraria, auxe gure amesa. Zaletasun ori bear bearrekoa da, gure erriak erlegiñozko eta osterantzeko liburu onak irakurri daizala gura badogu.

Orretarako, Bizkaiko erri guztietara bialdu genduan **ANAITASUNA**, eta danori eskatu geuntsen laguntzea. Txera ona egin euskuen erri askok, eta onek ogetabost, beste orrek berrogetamar, urrengo arek eun orri ta geiago eskatu euskuezan.

Banaka batzuk ordaindu dabe. Geienak ez oraindiño. Orregaitik, ainbat ariñen egin daiela eskatuten deutsegu. Ea ba, illabete onetan eta urrengoan danok zerbait botetan dozuen. Eta orriak zabaldu leikezan neskatilla baten izena bialtzen badozue, oraindiño obeto.

Beste erri askok, ostera, ez euskuen ezer erantzun. Alan ta guztibere, asko edo gitxi, bialtzen izan deutseguz **orritxuak**. Ez dakigu gusetan jakezan ala ez. Ez dakigu aurrerantzean-be artu gura izango dituenentz. Mesede aundia egingo leuskigie, al bait lasterren zerbait erantzungo baleuskue; eta orregaz batera zeredozer bialdu ezkerro, askoz obeto, aurrera joateko dana bear dogu-ta.

Bizkaiko euskal irakurleak, eutsi eiozue **ANAITASUNA** eleizorritxuari. Eta danon artean aurrera eroan daigun ain bearrekoa dogun arazo au.

Idatzi zuzenbide onexegaz:

R. P. Rector del Colegio Seráfico

PP. Franciscanos

FORUA (Vizcaya)